

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2024ko zerga egutegia

Jakinarazten da hasi dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2024ko ordainketak egiteko aldia.

I. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko epea: 2024ko irailaren 16tik azaroaren 16ra.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2024ko irailaren 26an egingo du.

B) Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian sarrera egiteko epea amaitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan eta Zergabilketako Araudi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, eta sortzen diren errekaru eta berandutze interesak ere kobratuko dira.

II. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideraketaren banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenez borondatezko epean baino ezin izango dute ordaindu, banketxean eta banku transferentziaren bidez. Horretarako, aldez aurretik, ordainagiria jaso beharko dute udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.

III. GOMENDIOAK.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik izan bada, Armiñongo Udalarik horren berri eman behar zaio, baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2024ko uztailaren 17a

Alkatea

GORKA MEANA MARCOS